

# 41. Ingurumen Buletina



## AURKIBIDEA

- Fracking-aren aurkako dinamika: ikasgaiak, lorpenak eta mugak.
- Ekonomia inklusiboa
- Diesela hilgarria da
- Ahalduntzea, emakumeak eta burujabetza, beharrezkoa den trantsizio energetikoan.
- Suitzak energia nuklearra baztertzea bozkatu du



## Fracking-aren aurkako dinamika: ikasgaiak, lorpenak eta mugak

Joan den ekainaren 21ean Bruselan Alter Summiten ekitaldi bat antolatu zuen: *“Oztopoak gainditu: Lan mugimenduaren eta klimaren mugimenduaren arteko konbergentzia praktikoaren alde, azpiegitura fosil berrien aurkako borrokaren alde eta lan duinaren alde”*. Ekitaldian ELAK Hego Euskal Herrian fracking-aren aurkako dinamika emandako ikasgai, lorpen eta mugen azterketa

Frackingaren aurkako mobilizazioak hainbat lorpen izan du:

- Gasa erazteko teknika honen kalteez herritarrak kontzientziatzea.
- Frackingik gabeko hiri eta herrien sarea.
- 6/2015 Legea, zeinak izatez EAEko lurraldean frackinga baliatzea galarazten duen, ingurumenarekiko eskakizun zorrotzak ezartzen baititu.
- Energiaren 2016-2030 Euskal Estrategia, zeinetan Eusko Jaurlaritzak baztertu egiten duen gasa erazteko frackinga baliatzea.

Gizartean izan den erreakzio gogorak, batetik, enpresa zultzaileentzako abagune ekonomiko txarrak eta ingurumen-eskakizunak areagotu dituen legediak, bestetik, eragin dute proiektuak bertan behera geratzea eta enpresa zultzaileak atzeko atetik alde egitea.

Halere, erazteko proiektu erraldoien aurkako borrokan ezin da etsi. 2016ko urrian Energiaren Euskal Erakundeak (Shesa) Ingurumen Ministerioari Subijanako lurzorua zultzatzeko baimena eskatu zion, gas bila hasteko. Frackingaren aurkako borroka desberdinen arteko borrokaren esperientzia eman zigun (ingurumen eta gizarte mugimenduak, alderdi politikoak, sindikatuak...); hau beharrezkoa izan da proiektu berri horren aurka fronte komun bat azkar eta taxuz osatzeko.

Lorpenik handiena izan da diagnostikoan asmatzea eta berriz ere egitasmoaren aurkako mugimendu sozial indartsu bat antolatu izana: BERRIZTU elkarrekin borrokan diharduten hogeitau erakundek osatzen dute: EH Bildu, Podemos eta Equo; ELA, LAB, ESK eta STEILAS sindikatuak, eta beste elkarte batzuk, esaterako Fracking ez, Ekologistak Martxan...).

Hauek dira Berrizturen helburu nagusiak:

- Gasa erazteko proiektuak geldiaraztea, mobilizazio sozialaz eta bide instituzionaletik jota.
- Herritarrei ikusaraztea okerreko energia iturriei ezin gairela tematu.
- Energia ereduari buruzko gogoeta egin proposamenak egin eta hauek lantzeko.

Gasa erazteko teknika honen aurkako beste arrazoi bat da ehundaka edo milaka putzu egin beharoko liratekeela gasa lur azpitik ateratzeko; horrek lurraldea industrializatu eta inguru naturala sunsituduko luke; gainera, metano ugari metatuko litzateke, eta honek ihesen arriskua sortuko luke. Gainera, proiektua garatzeko 12 milioi euro eredu fosil zaharkitu batera bideratu beharoko lirateke, energia berriztagarrietan inbertitu ordez.

Bestalde, herritarrei entzungor eginda, Euskadiko Hidrokarburoen Sozietateak (Shesa), zundaketa sustatu duen erakundeak, Ingurumen Ministerioari ingurumen-inpaktuaren adierazpen sinplifikatua eskatu zion. Estatu-idazkaritzak 2017ko maiatzaren 3an ebatzi zuen ebaluaketa hori askoz zorrotzagoa izan behar zela; horregatik, arrisku eta ondorioen inguruan eskabidea ohikoa izan behar da. Organo administratibo honek dioenez, Shesak emandako informazioaren gabeziek galarazi egiten dute inpaktua behar bezala epaitzeko aukera, proiektuaren ezaugarriei, erabiliko den teknikari eta putzuaren diseinuari buruz. Halaber, aurreikusten du prospekzioak ingurumenean “kalte handiak” eragin ditzakeela. Ohiko prozedura nahiago du, berme handiagoa ematearren.

Erabaki hau proiektua behin betiko amaitzeko urrats bat izan liteke, eta herritarren garaipena da, zalantzarik gabe, erabakitzekeo prozesuan parte hartzeko aukera handiagoa izango baitute. Hain zuzen Jaurlaritzak hau saihestu nahi zuen ingurumen-inpaktu sinplifikatua eskatu zuenean.

Honelako proiektuak geldiaraztea ezinbestekoa da, energia eredu zaharkitu batean tematzen baitira; horretarako ingurumenaren aldeko borrokak eta klase-borrokak bat egin behar dute. Baina ezin dugu ahaztu gure gaurko borroka mugatuta dagoela: ez gara gauza izan politika publikoak energia-eredu alternatibo baten zerbitzura jartzeko. Honek eztabaida soziala zeharo baldintzatzen du, ez baita unean-uneko kontuetatik aldentzen (proiektu jakinen kontra); haatik, gure helburua da eztabaida sistematikoa izatea, eredia bera zalantzan jarri eta alternatibak plazaratzeko.



## EKONOMIA INKLUSIBOA

(Testu honen oinarria da Angel M<sup>a</sup> Gonzalez Tablasek Foro Transiciones webgunean argitaratutako dokumentua)

Etorkizun diren trantsiziotan Ekonomiari dagokion eginkizuna, Gizarte-zientzia den aldetik, berrikusi egin behar da. Ekonomia integratzaile eta inklusiboa eraiki behar da; ez luke oztopo izan behar, baizik jendearen eta planetaren arazoak konpontzeko tresna bihurtu.

Honi buruzko galdera mordo bat erantzun beharra dago: Zein da ekonomiaren eginkizuna? Zein neurritan ari da hori betetzen? Galdutzat eman behar ote dugu ekonomia, eta trantsizioetara jo hura alde batera utzita?

1).- Ekonomia nagusia: Ikusmolde honen arabera ekonomia esparru itxi eta beregaina da. Merkatu-ekonomia aipatzen denean badirudi merkatuak ematen dituela ekonomia ulertzeko gako guztiak. Alabaina, merkatuaren diskurtsoarekin batera prozesu oligopoliko ugari ikusten ditugu. Bestalde, oinarritzat hartzen dituen kontzeptuek informazio partziala ematen dute, esaterako BPGak, honek diru-adierazpidea besterik ez duena islatzen duelarik. Edota lanaren kontzeptua, ekonomia honen arabera prezio baten truke saltzen den ondasun hutsa.

Ekonomia hau oztopoa da, ez da baliagarria ingurumenaren edota herritarren arazoak konpontzeko. Gure garaiko benetako arazoei aurre egitea eragozten du; hauen jatorria, naturaren muga biofisikoen haustura. Beraz, ez du irtenbiderik eskaintzen, ezta proposamen alternatiborik ere.

2).- Ekonomia kritikoa: Jarduera ekonomikoaren definizio askoz zabalagoa egiten du: bizi garen planeta honetan gizakion ugaltze sozialak eskatzen duen produkzio-, ondasun eta zerbitzu elkartruke- eta kontsumo-prozesua da. Ekonomiaren eginkizuna, hain zuzen, funtzionamendu hori ulertu eta analizatzea da. Ekonomia kritikoa ekarpen nagusia da ekonomiaren ulermen sistemikoa. Merkatua soilik gauza batzutarako da baliagarria, ez denetarako, eta behar bezala funtzionatzeko baldintza batzuk behar ditu.

Horrenbestez, ekonomia sistema irekia da, beste sistema batzurekin batera elkarbizitzen dena, eta hauetako batzuren menpean dagoena (esaterako, planetaren muga biofisikoak). Ekonomiaren ulerkera honek dimensio ekonomikoen beste irakurketa batzuk eskaintzen ditu. Adibidez, lanaren kontzeptuari dagokionez ez du zatia osotasunarekin nahasten, ekonomia nagusiak egiten duen moduan; aitzitik, dauden lan motak aintzat hartzen ditu: soldatapekoa, autonomia, zaintzakoak...

Dena dela, ekonomia hau ere mugatuta dago, ez baitauka errealitatearen errepresentazio erabat diferentziatua egiteko osagai nahikorik. Halere, oso baliotsua da trantsizio prozesuan aurrera egiteko egiten dituen ekarpenengatik.

3).- Arrisku handiko agertoki batean gaude, eta une honetan helburu batzuk edo besteak lehenestea gizarteari dagokio, ez ekonomiari. Baina ekonomiak aurrea hartzeko estrategia eta praktikak bultzatzea, gizartea zalantzarik ez etorkizunaren aurrean hobeto kokatze aldera. Abiapuntuko errealitatean kapitalismoa nagusi da. Hau ikusirik, gure helburua izan behar da erantzunak topatzea alternatiba bideragarrietarantzko trantsizioa gauzatzeko. Horregatik, ekonomia inklusiboa behar dugu, ekonomiak bere oinarritzko funtzioak berreskura ditzan, oraindik arazoei aurre egiteko tresna bilaka dadin eta hortik hasita trantsizioen eremuan sartzeko, zeintzuk mundu bideragarrietarantz eramango gaituzten, bizitzeko duinak izango direnak.

Ondorioz, ekonomia inklusiboaren erronka da ortodoxiako osagai erabilgarriak behatzea; baina aldi berean paradigma kritikoen ekarpenak ere txertatu behar ditu. Osagai desberdinak ez dira paradigma integratzaile batean urtu behar; osagai bakoitzak bere ikuspuntutik eginkizun bat du. Ondoren, lan hori guztia arazo konkretuetan mamitu behar da, ikuspuntu desberdinak integratzen dituzten analisi eta proposamenen bidez.

Ekonomia inklusiboarentzako erronkarik behinena da ekonomiarentzat hazkundera derigorrezko ez izatea, eta ingurumena iraunkorra izatea eragozten duten jokabideak baztertzea. Gaitasun erreproduktibo soziala posible egiten duten planteamenduak topatu behar ditugu, ingurumen iraunkorraren irizpideak bere gain hartuko dituelarik.

4) Ondorioak: Ekonomia ortodoxoak, egilearen arabera, egiten ditu ekarpen partzial erabilgarriak, baina ez du eremu garrantzitsurik lagatzen.

Ekonomia kritikoaren osagaiak suspertu behar dira, aberastea, harremana, elkarrizketa eta interkonektioa sustatzeko; hazi egin behar dute, baina ahal dela ez batak besteari bizkar emanda.

Beraz, ikusmolde integratzaile bat bultzatu behar da, ekarpen partzialen aberastasuna mantendu ez ezik hauek gainditzen dituen, horrela ezagutza multzo berri bat sortzeko ondasun eta zerbitzuen produkzio, elkartruke eta kontsumoari buruz; hauen gainean eraiki daiteke gizakion ugaltze soziala.

## Diesela hilgarria da

International Council on Clean Transportation (ICCT) izeneko erakundeak, zeinak Volkswagen ibilgailu manipulatuaren eskandalua kaleratu zuen, diesel ibilgailuek osasunari eragiten dioten kaltea salatu du bere txostenean.

Diesel motoreek gas kutsatzaile gehiago igortzen dituzte baldintza normaletan, kutsadura maila egiaztatzeko froga teknikoetan baino. Txostenak zenbatu du zer suposatzen duen ibilgailu horiek isuri omen dutena eta benetan ingurumenera isurtzen dutenen arteko aldea: Emaitzek adierazten dute ibilgailu astunen herenak eta arinen erdiak oxido nitrogenoko (NOx) isurien legezko mugak gainditzen dituztela.

2015ean motor mota hauek 13,2 miloi tona NOx isuri zituzten; horietatik 4,6 miloi ez zeuden zenbatuta. Garaia baino lehenagoko heriotza da bizi-itxaropenera iritsi baino lehen gertatzen dena. 2015ean Europan honelako 11.400 heriotza gertatu ziren gehiegizko isuriak zirela medio. Heriotza horiei gehitu beharko genieke legezko mugaren barruko isurien ondorioz gertatutakoak, hau da, 17.100 heriotza.

Europan gertatzen da gehiegizko NOx isuriek eragindako munduko heriotzen %68a; beste eskualde batek ere ez du halako heriotza tasa alturik. Kutsatutako aireak urtero 467.000 pertsona hiltzen ditu, 2016an Europako Ingurumen Agentziak atera zituen datuen arabera.

Heriotza horietatik gehienak saihestu ahalko liriateke ibilgailu astunen isuriei mugak ezarriko baltzaizkie; hainbat herrialdetan halako mugarik ez da existitzen, eta ziurtatu beharko litzateke ibilgailuek betetzen dituztela Europan existitzen diren mugak.

Orain arte bakarrik Estatu Batuetako datuak ezagutzen genituen; horietxek baliatu zituzten Volkswageni isun bat jartzeko. Txosten berri honek aski froga ematen du Estatu Batuetako eredu Europan eta analizatu diren beste herrietan aplikatu beharko litzatekeela esateko.



## Ahalduntzea, emakumeak eta burujabetza beharrezkoa den trantsizio energetikoan (Viento Sur aldizkarian argitaratutako Clara del Campok idatzitako artikuluan oinarrituta).

Orokorrean, energiaren kontsumitzaileok ez dakizkigu energiaren ekoizpenaren ondorio politiko, sozial eta ekologikoak zeintzuk diren. Batez ere, eragin horiek gugandik urrun gertatzen direlako, edo ezkutatzen zaizkigulako. Edo bestela esanda, etxeko etengailuak sakatzen ditugunean hauek funtzionatzen dute, baina ez dakigu zer dagoen hain barneratuta daukagun keinu horren atzean.

Energiaren inguruan sortzen diren arazoei buruzko informazioaren gabezia da oztoporik nagusia hiritarrek eredu aldaketaren beharraz motibatuzko. Hori dela eta, ELAK helburu bat dauka, inpaktuak ikusaraztea, horrekin energia izateko eskubidea erdian jartzen duen eredu energetikorako aldaketa bultzatuz. Horrez gain, eredu hori boterearen deskontzentrazioan, energia berriztagarrian eta kontsumo arduratsuan oinarrituko litzateke.

Botere-erlazioen ikuspegitik energiari begiratzen badiogu, energia-eredu horretako biktima nagusiak emakumeak direla ikusiko dugu, gizarte patriarkaleko biktimak ere diren modu berean. Haiek baitira bizitzan zehar pobrezia energetikoa jasateko aukera gehienak dituztenak. Aitzitik, energiaren jabeak gizonezkoak dira: Endesa, Iberdrola, Gas Natural Fenosa edo Repsol... Energia-enpresa handiek, batik bat, hiru gauza dituzte amankomun: IBEX 35ean kotizatzen dute, urtean ehunka milioi aitortzen dute, eta gizonak dituzte zuzendari. Arlo politikoan gauzak ez dira oso bestelakoak, ez baita sekulan izan emakume bat energiako ministro.

Arrazoi horiek direla-eta, onartu behar dugu emakumeenganako diskriminazio aktiboa badagoela esparru horretan. Zergatik? —galdetuko diogu geure buruari—; eta beste galdera hau ere etorriko zaigu burura: Energiaren pertsonarik eraginkorrenak eta ahaltzuenak gizonezkoak izateak zer ondorio darrak? Emakumeak erabakiguneetatik kanpo egotearen lehen ondorioa zera da: haien beharrianak, analisiak edo proposamenak ez dira hizpide izango gogoeta kolektiboko esparruan, ezta politika publikoetan, ezta enpresa-estrategia pribatuetan ere. Horregatik premiazkoa eta funtsezkoa da feminizatzea hala politika energetikoa, nola diagnostiko- eta eztabaida-guneak.

Beste ondorio batzuk: energia-eredu espainiarrak ezaugarri ditu erregai fosil inportatuen oso menpekoea izatea, Europako energiaren preziorik garestienetarikoa izatea, eta “ate birakariak” izatea. Gainera, ingurumenaren oraingo krisiaren testuinguruan, enpresa horiek, energia-trantsizio zuzurra bultzatu beharrean, energia berriztagarrien garapena oztopatzen dute, eta erauzketa-politika horiek azken mugaraino eramateko prest daude. Gobernuak boikota egiten dio zuzenean energia-trantsizioari, ez alferrik Estatu Espainolak badaezpadako marka bat du irabazia, auto-kontsumorako munduko araurik zorrotzenak izatearena.

Gorago aipaturikoak ez du esan nahi emakumeek energiaren inguruko borroka sozialetan parte hartzen ez dutenik; baina beheko mailetatik egiten dute, eta ikusezinak dira. Horren haritik aipatu beharrezkoa da energia-trantsizioa, berez, gizartea eraldatzeko tresna badela, eta demokrazia-gabeziaren testuinguru batean gertatzen dela (iluntzaletasuna, hizkera teknikoaren gehiegizko erabilera, egitura konplexuak eta ulergaitzak...). Energia ulerterraza izatea funtsezkoa da, energiaren herri-pedagogian oinarritutako kultura energetikoa bultzatu behar da. Arlo publikotik ere egin daitezke gauza interesgarriak, estatu-esparruan 700 udalek energia berriztagarria kontratatu dute, eta horrela 12 milioi biztanleri ematen zaie zerbitzua. Kontratu horietako batzuk irabazi-asmorik gabeko kooperatibekin egin dira (Goienar), zeinetan informazioa eman, sentsibilizazioa sustatu eta demokrazia energetikorako praktikak erakusten diren.

Halaber, ekimen pribatutik ere badago zereginik, elektrizitate berriztagarria merkaturatzen duten kooperatiben bidez. Kooperatiba horietan milaka pertsona aritzen dira, kontsumoaren inguruan, energia berriztagarrietan inbertsio kolektiboak antolatuz, eta herritarrek eredu-aldaketari lotuz. Nahiz eta energia berriztagarrien arloko arau-esparrua ezin txarragoa izan, nahiz eta multinazionalak sekulako presioa egin komunikabideetan, alderdi politikoetan, doikuntza-politikan... Borondate politikoa izanez gero, gauza anitz eta anitz egin daiteke. Eta herritarren esku dago, hain zuzen, aldaketa bultzatzeko aukera.

## Suitzak energia nuklearra baztertzea bozkatu du

Maiatzaren 21ean, Suitzako biztanleen %58,2ak energia nuklearra uztearen eta energia iturri berriztagarriak garatzearen aldeko bozketa eman zuen. Bistako arrazoiengatik, herrialde askotan berri honek eragin handia izan du; aitzitik, Hego Euskal Herrian oharkabean pasa da. Baina, hala dirudien arren, erabaki hau ez da inola ere iraultzailea, kontrakoa baizik: Suitzako herriak arrazoi pragmatikoetan oinarritu du bere erabakia, baita ia duela 40 urte hasi zen tendentzia anti-nuklearrarekin koherentea izatearren ere. Inolako zalantzarik gabe, bozketa ematerakoan presente egon dira bi ideia hauek: energia nuklearra garestiegia dela eta biztanleen artean mesfidantza gehiegi sortzen duela, batez ere, Fukushima istripu nuklearra izan eta gero.

Suitzaren helburua gaur egun, bere 2050.eko Energia Estrategiaren arabera, energiaren kontsumoa murriztea eta energia berde eta iraunkorra sortzea da. Suitzako herriaren erabaki hori mirespenez eta inbidiaz ikusi izan da kanpotik, baina kritika batzuk ere egin daitezke. Adibidez, erabakitako legea orokorregia dela, ez baitu epe zehatzik jartzen herrialdeko 5 erreaktoreak itzaltzeko.

Argi dago Suitzaren erabakia zuzena izan dela, energia nuklearraren kontrako erabakia segurtasunean eta arrazoi ekonomikoetan oinarritu arren, ingurumeneko arrazoietan baino. Guri ere gustatuko litzaiguke gai honetaz demokratikoki erabakitzeko gaitasuna izatea, Suitzako hiritarrek referendum baten bitartez egin duten bezala.

